

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

1355

EBAZPENA, 2026ko martxoaren 17koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez aurretiko administrazio-baimena eta eraikuntzako administrazio-baimena eman eta onura publikoko deklarazioa egiten baita honako proiektu honetarako: 132 kV-ko Alonsotegi-Oxinorte 1 eta 2 linea elektrikoa zirkuitu bikoitzean Zorrotzaurre TARA desbideratzea, Bilboko eta Barakaldoko (Bizkaia) udal-mugarteetan.

Espedientea: 48-AT-Y-2025-00097.

AURREKARIAK

1.– 2025eko urriaren 29an, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUk aurretiko administrazio-baimena eta eraikuntzako administrazio-baimena eta onura publikoaren deklarazioa eskatu zituen honako proiektu honetarako: 132 kV-ko Alonsotegi-Oxinorte 1 eta 2 linea elektrikoa zirkuitu bikoitzean Zorrotzaurre TARA desbideratzea, Bilboko eta Barakaldoko (Bizkaia) udal-mugarteetan.

2.– Martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan (dekretu horren bidez arautzen dira instalazio hauen administrazio-baimenerako prozedurak: argindarra ekoitzi, garraiatu nahiz banatzeko instalazioak) eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 144. artikuluan adierazitako ondorioetarako, argitara eman zen horren iragarkia, eskabide hori jendaurrean jartzeko, 2025eko azaroaren 28ko EHAA, 2025eko abenduaren 19ko BAO, Barakaldoko eta Bilboko udaletxetako iragarki-taulan eta 2025eko abenduaren 5eko El Correo egunkarian.

3.– 2025eko azaroaren 24an, honako erakundeei egoki irizitako baldintza teknikoak aurkezteko eskaera bidali zitzaion: Barakaldoko eta Bilboko udalei, Trenbide Azpiegituren Administratzaileari (ADIF), Bilboko Portu Agintaritzari, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari (BBUP), Uraren Euskal Agentziari, Nortegasi, Telefónica España SAUri eta Euskaltel SAUri.

4.– Arauzko epean, honako baldintza tekniko hauek jaso dira:

– 2025eko abenduaren 23an Telefónica de España SAUk azaldu du ez dagoela proiektuaren aurka, betiere indarrean dagoen araudia betetzen bada. Gainera, instalazioetan kalteak edo komunikazioetan perturbazioak gertatuz gero, jarduteko eskubidea erabili ahalko du.

– 2025eko abenduaren 26an, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak adierazi zuen proiektatutako jarduketek eragina izan zezaketela bere sare nagusiko saneamendu-instalazioetan. Hala ere, jasotako informazioa aztertu ondoren, proiektua bideragarria eta egokia dela uste du, betiere ezarritako baldintzak betetzen badira eta dagokion baimena eskatzen bada.

– 2026ko urtarrilaren 15ean, ADIFek azaldu zuen, proiektuan planteatutako obrak trenbidearen eraginpeko eremuetan daudela –Trenbide Sektoreari buruzko 38/2015 Legean ezarritakoaren arabera–, eta, beraz, azpiegituren administratzaile horren nahitaezko baimena behar dutela. Halaber, ezartzen du aplikatu beharreko araudia bete beharko dutela, bereziki, jabari publikoko, babeseko eta eraikitze muga-lerroko eremuekiko bateragarritasunari eta mugaketari dagokienez.

Agiri guztiak I DE Redes Eléctricas Inteligentes, SAUri bidali zitzaizkion, eta honek agiri guztiak onartzen zituela eta horiekin guztiekin ados zegoela adierazi zuen.

5.– Halaber, arauzko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

6.– Behin espedienteaz aztertuta, eskaeraren aldeko txostena ebatzi dute Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzako energia-arloko zerbitzu teknikoek.

Ebazpen hau honako hauetan oinarritzen da:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza da espediente hau izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

2.– Hauetan ezarritako arauzko izapide hauek bete dira espedienteaz: Sektore Elektrokoari buruzko azaroaren 26ko 24/2013 Legea; Energia elektrikoaren instalazioen garraio, banaketako, merkaturatzeko eta hornidurako jarduerak eta baimentze-prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretua; Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 31ko 48/2020 Dekretua; eta bat datorren gainerako legedia.

Aipatutako lege-xedapenak ikusita, eta oro har zein zehazki aplikagarri diren gainerakoak oinarritzat hartuta, eta Lurralde Ordezkaritzako energia-arloko txostenarekin bat etorritik, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko lurralde-ordezkaritza hau

EBAZTEN DU:

1.– Aurretiko administrazio-baimena eta eraikitze baimena ematea I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresari, proiektu honetarako: 132 kV-ko Alonsotegi-Oxinorte 1 eta 2 linea elektrikoaren zirkuitu bikoitzean Zorrotaurre TARA desbideratzea, Bilboko eta Barakaldoko (Bizkaia) udal-mugarteetan.

2.– Deklaratzea baimentzen den instalazio elektrikoaren onura publikokoa dela. Sektore Elektrokoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 56. artikuluan xedatutakoaren arabera, deklarazioak hauek dakartza berekin: ondasunak okupatu eta eraginpeko eskubideak hartu beharra, eta okupazioa, gainera, urgentziaz egin beharra. Deklarazioak, halaber, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legearen 52. artikuluan presaz okupatzeko deklaraziorako ezartzen diren ondorioak dakartza, 53. artikuluan zehaztutako erregistro-ondorioekin.

Ebazpen hau ematen da 48/2020 Dekretuan xedatutakoaren arabera, eta baldintza orokor hauek kontuan hartuta:

1.– Obrak egiteko, onartutako proiektua bete behar da, kasu bakoitzean eskatu eta baimentzen diren aldaketak eginda.

2.– Martxan jartzeko epea hiru urtekoa izango da, ebazpen hau ematen den egunetik aurrera. Epe hori igaro eta instalazioa ustiatzeko baimenik eskatu ez bada, ebazpen hau iraungitzat jo ahal izango da.

3.– Lanak amaitutakoan, instalazioen titularrak Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzari jakinarazi beharko dio lanen amaiera, behin betiko onarpena eman, eta abian jartzeko akta egiteko.

2026ko martxoaren 27a, ostirala

4.– Obrak egiteko behar diren udal- eta probintzia-eskumenetako eta bestelako baimenak edo lizentziak eragotzi eta aparte utzi gabe ematen da ebazpen hau, eta eskatzaileak nahitaez eskuratu beharko ditu baimen horiek guztiak. Era berean, hirugarrenen eskubideak kaltetu gabe emango da, jabetza-eskubidea salbu utzita.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsua jar dakioket Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saileko Deskarbonizazioaren zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, eta hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikulua eta hurrengoaren arabera.

Jarritako errekurtsuaren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da. Epe hori igaro eta ebazpenik eman ez bada, gora jotzeko errekurtsua ezetsizat joko da.

Bilbao, 2026ko martxoaren 17a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko lurralde-ordezkarria,
MARÍA JESÚS MARKAIDA URIARTE.